Urretxun geroz eta kotxe gehiago dago. Aurtengo datuen arabera, ibilgailuak, guztira, 2809 baldin badira, horietatik 2446 (%87a) kotxeak ditugu. Gainera, azkeneko bi urteetako igoera izugarria izanda: 1999-2001eko epean 402 kotxe gehiago. Igoera honek ondorio zuzenak dakartza Urretxun bestela ere nahikoa zaila den zirkulazioan. Arazoak hainbat dira: ataskoak, lerro bikoitzean uzten diren ibilgailuak, aparkaleku falta, zamalanak edonon egitea, abiadura handiz gidatzea, zarta.... Arazo hauei denei aurre egin asmoz, Udalak plagentza berri bat jarriko du martxan uztailearen hasiera aldera. Hainbat aldaketa izango dira baina guzti horren berri zuzena etxean bertan jaso ahal izango dugu herrian buzoneatuko den foiletotxo baten bidez.

Evolución del parque de vehículos en el período 1990-2001



Los datos que figuran en el gráfico son al 1 de enero de cada año. Los vehículos han sido agrupados en turismos, autobuses, turismos-furgonetas, camiones-tractores-remolques y motocicletas. Con la aplicación del Decreto foral 144/1999 de 21 de diciembre por el que se determina el concepto de las diversas clases de vehículos y las reglas de aplicación de las tarifas del impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, en el año 2001 el grupo de turismos-furgonetas desaparece y los vehículos que se encontraban en dicho grupo, unos han pasado a formar parte del grupo de turismos y otros al de camiones.

Como es lógico y puede apreciarse en el gráfico, el mayor volumen de vehículos está formado por turismos, que alcanzan el 87% del volumen total, el siguiente es el integrado por camiones-tractores-remolques, con un 8,33%.

El incremento del número total de vehículos en este período ha sido de 1003, que supone un 55% del volumen total



Gurutz Jauregi:

“ Gobernu berriak Euskal Herriko gatazka egoera bideratu eta hain beharrezkoa dugun pakea lortzeko oinarriak ezarri ditzan nahiko nuke ”

Urretxuko Goiko kalean jaioa, 1946 urtean, Patron etxean, Zumarragako Banco Vizcayan lanean zebilela ikasi zuen Zuzenbidea Deustuko Unibertsitatean, ETArri buruz egin zuen karrera bukatu ondorengo tesia. Egun, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna da eta Donostiako fakultatean ematen ditu eskolak. 1981-1982 ikasturtean Euskal Herriko

Unibertsitateko errektoreordea izan zen eta 1983-1984 ikasturtean Zuzenbide Fakultateko dekanoa. Irakasle lanetan ezik Nazionalisismoa eta Demokraziari buruzko ikerketan aditua da, gaiari buruzko 12 liburu idatzi ditu dagoeneko eta beste bat prestatzen ari da. Euskal Herri mailan analista politiko ezaguna eta preziatua.

Euskadi, Espainia eta atzerriko hainbat aldizkari eta egunkaritan artikulu asko idatzitakoa. Sari ugari jaso ditu, iaz Estatu mailan antolatzen den Jovellanos sariaren finalista izan zen “*La Democracia Planetaria*” liburuarekin.

1997an, “El Correo” kazetaritza saria eta 1996an Ana Frank saria eskuratu zituen besteak beste. Nazio Batuetan, gatazka etnikoen erabakitasunean aholkulari lanetan aritu izan da.

Urretxutik joan ondorenetik Donostian bizi bada ere, lan kontuengatik denboraldiak pasa izan ditu Oxforden eta Estatu Batuetan familiarekin batera. Txinan hitzaldi bat ematetik etorri berria da.





Noiz arte bizi izan zinen Urretxun?

Gazterik hasi nintzen Zumarragako Banco Vizcayan lanean, 11 urte egin nituen bertan, 1983 urtea arte. Lanean nembilela zuzenbide ikasketak egin nituen Deustuko Unibertsitatean eta karrera bukatu ondoren, 27 urterekin Donostiara joan nintzen bizi izatera eta nire kontu abokatu moduan lan egitera. Sei urtez abokatu lanetan jardun nuen baina irakasle moduan lan egin nahi nuela oso argi nuen eta hortan hasi nintzen. Dagoeneko 23 urte daramazkit eskolak ematen.



Ze oroitzapen dituzu Urretxutaz?

Berandu arte bertan bizi izan nintzenez, ez nuen lagunekin lotura galdtu, Etxezpi elkarteko kuadrilakoa naiz. Donostiara bizi izatera joan nintzenean galdtu nuen lagun giroa. Gutxitan bada ere bueltatzen naiz herrira. Irimora igotzea asko gustatzen zait eta inori ezer esan gabe sarritan joaten naiz.

Askok aldatu al da Urretxu?

80. hamarkada inguruan krisialdia antzeman nuen Urretxun, itxura tristetia zuen herriak, baina ha-rrezkero aurrera egin duela iruditzen zait eta orain oso ondo ikusten dut, urbanistikoki erabat berritua.

Irakaskuntzaz aparte ikerketa lanetan ibiltzen zara.

Irakaskuntza asko gustatzen zait, gazte jendearekin egon eta hauei irakastea oso gustukoa dut baina badago gehiago gustatzen zaidan alor bat, ikerketa, hain zuzen ere. Gai bat aukeratu eta buru belarri hori lantzea. Hala ere ikasleekin egotea gero eta interesgarriagoa

iruditzen zait, geroz eta adin desberdintasun handiagoa dago neu eta unibertsitateko ikasleen artean eta gazteen ikuspuntua eta pentsamoldea ezagutu eta gazteekin konektatzeko oso baliagarria da irakasle lana.

Zein gai ikertu dituzu eta zein gaitan zara aditua?

Hiru gai sakondu ditut. Lehena, euskal nazionalismoa eta bereziki ETA eta bere ingurua, tesia ere ETArri buruz egin nuen. Ikertu dudari bigarren gaia Nazionalismoaren teoria orokorra da eta hirugarrena Demokraziaren teoria. Azkenaldian demokraziaren teorian sakontzen nabil buru belarri nahiz eta nazionalismoaren gaia ez dudari erabat baztertu. Guztira 12 ikerketa liburu idatzi ditut, nazionalismoari buruzkoak gehienak, demokraziari buruzkoak bi argitaratu ditut *“La Democracia Encrucijada”* eta *“La Democracia Planetaria”* eta trilogia bat osatu nahi dudanez, hirugarren liburu bat idazten ari naiz. Hala ere, honelako liburuak idaztea luze jotzen duenez, lauzpabost urte beharko ditut hurrengo kaleratu bitartean. Neronek, gai teorikoak nahiago ditut gai praktikoak baino, azterketarako zailagoak diren arren, aberasgarriagoak iruditzen zaizkit.

Pasa berri diren Legebiltzarerako hauteskunde kanpainan

abertzale eta ez abertzaleen arteko bereizketa nabarmena egin da.

Bereizketa hau egin izana ez zait ondo iruditzen. Neronek beti planteatu izan dut Euskal Herriaren helburua gizarte moderno bat eratzea dela eta hau lortzeko euskal nazionalismoaren atzean eta espainiar nazionalismoaren atzean *“vasquismoa”* zabaldu eta indartu behar dela. Hau da, euskal herritar guztiok, euskaldun sentitu behar dugula. Euskaldun sentitzeko modu asko dago. Posiblea da euskalduna sentitu eta abertzale ez izatea. Sentimendu hau XX. mendearen hasieran ohikoa zen. Garai hartako alderdi karlista, fuerista eta liberala ez ziren alderdi abertzaleak baina alderdi politiko hauetako kideak euskaldunak ziren, euskaldun sentitzen ziren, eta beraiek lortu zuten euskaldun grina, euskaldun izatearen sentimendua mantentzea. Aldi berean euskaldun eta espainola izatea onartzen zuten. Kanpaina honetan akats nabarmena somatu dut, bi aldeetatik, abertzaleen eta ez abertzaleen aldetik. Abertzale sentitzen ez direnak ez dute *vasquismo*-aren ideia onartu, ez dira euskaldun sentitzen, eta alderdi abertzaleek pentsatu dute beraiek direla euskaldun bakarrak. Alderdi abertzaleen akats nagusia euskaldun bakarrak beraiek direla pentsatzea da eta alderdi ez abertzaleen akatsa, euskaldun izatea ukatzea.

leak baina alderdi politiko hauetako kideak euskaldunak ziren, euskaldun sentitzen ziren, eta beraiek lortu zuten euskaldun grina, euskaldun izatearen sentimendua mantentzea. Aldi berean euskaldun eta espainola izatea onartzen zuten. Kanpaina honetan akats nabarmena somatu dut, bi aldeetatik, abertzaleen eta ez abertzaleen aldetik. Abertzale sentitzen ez direnak ez dute *vasquismo*-aren ideia onartu, ez dira euskaldun sentitzen, eta alderdi abertzaleek pentsatu dute beraiek direla euskaldun bakarrak. Alderdi abertzaleen akats nagusia euskaldun bakarrak beraiek direla pentsatzea da eta alderdi ez abertzaleen akatsa, euskaldun izatea ukatzea.

Zuk ez bakarrik Euskal Herriko komunikabideetan Estatu mailako zenbait egunkaritan ere kolaborazioak egiten dituzu, komunikabideek kanpaina honetan eragin handia izan dute iritzi publikoan.

Batez ere Madrileko komunikabideek. Sarritan joaten naiz Katalunara eta bertako komunikabideak estatukoekin alderatuz, neutralagoak dira, objetiboagoak. Komunikabideen manipulazioaren aurka herritar askok erreakzionatu egin



du eta sekula alderdi abertzaleei botoa eman ez dien hautesleak oraingo hauteskundeetan, oso konbentziturak izan ez bada ere, botu abertzalea eman dute, komunikabideek abertzale eta ez abertzaleen artean bultzatu duten bereizketari erantzunez. Dena den azken hauteskunde hauetan bi aukera besterik ez dira egon. Hautesleak bi ideien arabera erabaki behar izan du, beharbada erabat gutukoa ez den abertzalearen bata eta euskal instituzioekin bukatuko duen sentsazioa eman duen ez abertzaleena bestea. Herriak gutxiagatik izan bada ere, erabat konbentzitzen ez duen alderdi abertzaleari botua ematea erabaki du.

Euskal Herriko eraikuntzan aurrerakuntzarik eman al da.

Instituzio mailan aurrerakuntza handia eman da. Estatutua eta aginte politiko indartsua ditugu Euskal Herrian. Baina gizartea ez da gehiegi aldatu, neronek egitasmo amankomunak faltan botatzen ditut. Abertzaleek egitasmo zabalagoa planteatu beharko lukete, Euskal Herria osatzen duten herritar guzti-guztiak, ideologia desberdinekoak, kontutan hartuko lukeena. Aldi berean alderdi ez abertzaleek, euskal gizarteak, estatu mailako modeloaren ordez, bere mo-

delo propioa, modelo alternatiboa, eraikitzeko duen aukera eta nahia, onartu beharko lukete. Nire liburuetan askotan aipatu izan dut, orain arte abertzaleen helburu bakarra abertzaletasuna izan dela, aberrigintza, nolabait esateko. Neronek, aberrigintzaren ordez, herrigintza planteatuko nuke, hau da, euskal herritar guztiak gustura egongo diren herria eratzea. Honek ez du esan nahi ideologia eta programa desberdinak egon behar ez direnik, baina bai herria eraikitzen hasteko ezinbestekoa den oinarri bat falta dela, euskaldun sentitzearena alegia. Kataluinak denak katalanak sentitzen dira eta katalanismo hori kontutan hartuta eta abiapuntu hartuta, sentimendu horretan oinarrituta, sortzen dira gizarte modelo desberdinak. Euskal Herriko eraikuntzan, oinarri amankomuna euskaldun izatea, euskaldun sentitzea izan beharko litzateke eta sentimendu horretan oinarriturik hasi beharko litzateke lan egiten.

Hemendik aurrera zer egin beharko da egoera konpontzeko.

Hauteskundeen emaitzen ondoren, EAJ eta EAKdute lanean hasi beharra. Modu zabalean jokatu beharko dute. Nire ustez, ez litzateke zuzena izango modu soberanistan jokatzeko. Momentu honetan garrantzitsua ez da sobera-

nia edota botere handiagoa lortzea, eginbehar nagusia gizarte homogeneoa eratzea da, herritar guztiak lasai eta gustura biziko diren gizartea eratzea. Hau lortzeko, zaila izango den arren, ezinbestekoa da biolentziarekin eta ETArekin bukatu eta pakea ekarriko duen formula bilatzea. Pakean biziko den gizartea lortzea da helburu nagusia eta honen ondoren, gutzientzako egokia izango den gizarte proiektua bultzatu beharko da eta hortan hasi beharko da lanean. Hala ere, honek ez du esan nahi, euskal nazionalismoak botere gehiago, soberania handiagoa eskatu eta lortu behar ez duenik, hauxe baita bere helburua, baina hau nire ustez bigarren urrats bat izango litzateke. Bestalde, gaur egun, Euskal Herriko arazoa, barne arazoa dela uste dut, euskal gizartearen arazoa. Espainiar estatuarekin arazoak egon badaude, Euskal Herria eta Espainiaren arteko erlazioaren bideratzea gatazka handia eta arazo politikoa delako, baina nire iritziz, momentuz premia handiagoa du bertako gatazka konpontzea. Horretarako egin behar dena eseri eta hitz egitea da, eta elkarrizketa hauek borondate onez eta Euskal Herrirako eraikuntzan pentsatuz burutu behar dira, egoera konpontzeko helburuarekin. ^N

Amaia Pildain



1963. urteko Euskal jaia

Goian

(ezkerretik eskubira):
Gurutz Jauregi, Jose Antonio Murua, Ramón Lasa, Aniceto Mujika, Elias Zabalo eta José Sudupe

Behean:

(ezkerretik eskubira):
Candido Izagirre, Miguel Mari Mujika, Jesus Mari Kerejeta, Luis Mari Lasa eta Juanxo Beristain

Argazkia: Jesus Mari Kerejeta eta Jose Antonio Murua uztailakoa



Gurutz Jáuregi Bereciartu, nacido en Urretxu, es Catedrático de Derecho Constitucional en la UPV y analista político reconocido tanto en Euskadi como a nivel estatal. Tras las Elecciones Autonómicas del País Vasco y por su renombre y su proximidad con Urretxu la revista KAIXO le ha pedido una valoración de los resultados.

Elecciones del 13 de Mayo: Algunas reflexiones

Las elecciones al Parlamento Vasco celebradas el pasado 13 de Mayo constituían, en principio, unas elecciones más, como otras muchas, y por lo tanto no tenían una importancia especial. Sin embargo su celebración provocó, como de todos es conocido, una gran expectación. La causa fundamental de esta expectación hay que atribuirla al hecho de que, tanto la oposición (PP-PSE) como el Gobierno español y los poderes mediáticos con sede en Madrid pretendieron convertir tales elecciones en un plebiscito sobre la actuación del Gobierno Vasco, y particularmente, de las fuerzas nacionalistas, a lo largo de estos últimos.

Del resultado de estas elecciones yo destacaría varias cuestiones o consecuencias. En primer lugar, la lección de civismo y madurez dada por la ciudadanía vasca. Civismo como lo demuestra el altísimo porcentaje de participación que ha superado el 80%, y madurez porque, haciendo caso omiso de los rifirrafes de la campaña y de la enorme presión política y mediática sufrida, la sociedad vasca ha decidido con plena libertad la opción política que ha considerado más conveniente.

Un segundo, e importante, dato a destacar lo constituye el descalabro sufrido por EH. La sociedad vasca ha realizado una severa llamada de atención a ETA y su mundo para que abandonen la violencia y asuman de una vez por todas métodos de lucha pacíficos y democráticos. El empeñamiento en la actividad armada tras estas elecciones puede suponer el comienzo del fin tanto de ETA como, incluso, de EH.

En tercer lugar destacaría el fracaso de la estrategia llevada a cabo por el PP y, en menor medida, el PSE. Ambos partidos han cometido un gravísimo error que se les ha vuelto como un boomerang. Ese error ha consistido en deslegitimar de raíz al PNV y EA hasta el punto de negar al nacionalismo su carácter de opción política democrática. Una buena parte de la ciudadanía vasca ha considerado que esa deslegitimación del nacionalismo implicaba una deslegitimación de las propias instituciones vascas y todo lo conseguido hasta ahora (autonomía, euskera, cultura, instituciones, etc...).

La victoria del PNV-EA no se ha producido, en mi opinión, tanto por méritos propios cuanto por los errores cometidos

por el PP-PSE. El PNV-EA deberían tener muy en cuenta este aspecto a fin de evitar los muchos errores cometidos a lo largo de los últimos años. En tal sentido considero que los ciudadanos han expresado de forma muy clara su idea sobre cuáles son los deseos y prioridades de la sociedad vasca: Una sociedad en paz que pueda resolver sus conflictos sin recurrir a métodos violentos, una sociedad plural en la que quepan todos los vascos, sea cual sea su ideología, una sociedad moderada que le permita desarrollarse y aumentar su ya notable nivel de bienestar; y, en definitiva, una sociedad respetuosa y relativamente satisfecha con sus instituciones, todo ello sin perjuicio de posibles mejoras o avances en su nivel de autonomía o en el logro de un mayor nivel de desarrollo político.

Ojalá que la constitución del nuevo Gobierno vasco sirva para estabilizar y normalizar, dentro de lo posible, la convulsa política vasca, y sirva, asimismo, para poner los cimientos de esa paz de la que tan necesitados nos encontramos.^N

*Gurutz Jáuregi Bereciartu
Catedrático de derecho constitucional de la UPV.*

Nacido en la Calle Arriba en 1946, en la casa de Patron, Curso los estudios de Derecho en la Universidad de Deusto, mientras trabajaba en el Banco Vizcaya de Zumarraga y realizó la tesis sobre ETA. Es Catedrático de Derecho Constitucional en la UPV e imparte clases en la Facultad de Derecho del campus de Ibaeta en Donostia. Ha sido vicerrector de la UPV y decano de la Facultad de Derecho. Además de la

enseñanza se dedica a la investigación y es un estudioso reconocido en el tema del Nacionalismo y de la Democracia. Hasta la fecha ha publicado 12 libros sobre estos temas y en la actualidad está preparando otro. Analista político de renombre tanto en Euskadi como a nivel estatal, ha colaborado en numerosas publicaciones y medios de comunicación de todo el estado. Posee varios premios, fue finalista del premio *Jovellanos* por su

libro *"La Democracia Planetaria"*, en 1997 recibió el premio de periodismo de "El Correo" y en 1996 el premio "Ana Frank". Ha sido Consejero de las Naciones Unidas en la comisión de problemas étnicos. Desde que dejó Urretxu ha vivido en Donostia aunque por motivos de trabajo ha pasado largas temporadas junto a su familia en Oxford y Estados Unidos. Recientemente ha dado unas conferencias en China.



Ezkontzea erabaki garrantzitsua da bikote batentzat. Ohitura, tradizio, sinesmen eta pozez beteriko ekitaldi honek, gehienetan, egun berezi batetan bihurtzen da ezkondu berrientzat eta hauen senitarte eta lagunentzat.

Ezkontza zibilak Urretxun



Gure ohiturek horrela adierazita, gaur egun, senar-emazte bihurtzen dituen ekitaldi honek bi erata egin daiteke, ezkontza erligiosoa edo zibila.

Bigarren honi helduz, Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusia izan ohi da ezkongaien aukeratzen duten lekua eta ekitaldia ospatzeko Alkateak eta Pake Epailea dute ahalmena. Halere, Alkateak zinegotzientzengatik utzi dezake agindua, eta hori aprobetxatuz, arreba ezkontzei aukera izan zuen udal ordezkari batek.

Ezkontza zibila ospatzeko prozesua ohizkoa da, hau da, hasieran bikoteak Bake Epaitegian ezkontzeko asmoa dutela adierazten dute. Espedientea irekitzen da eta ezkondea publikoa egiten da. Kontrakoa egon ezean, ekitaldia ospatzen da, ezkongaien nahi duten lekuan eta eran.

“El salón de plenos es el escenario elegido para el enlace”

Egunak berak sekulako garrantzia du, bikoteak ate berri bat zeharkatuko balu bezala bizi eta sentitzen du.

Pello Gonzalez Alkateak ezkontza ugari ospatu ditu. “Denetarik dugu, ekitaldi xumea nahi dutenak eta, dotoreagoak. Nik uste dut, bikotearen asmoarekin bat izan behar duela eta Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusiak aukerak eskaintzen ditu bakoitzak nahi duen ezkontza egiteko”. “Guk hemen bost minutuko ezkontzak izan ditugu eta, aldiz, ordu betekoak” dio alkateak.



Nerea Zabalo eta Miguel Angel Mujika bere ezkontza egunean

Ezkontza zibilak ez dute elizan ospatzen direnak adina ospe, halere, Pello Gonzalezen esanetan “ezkontza dotoreak egin daitezke, izan ditugu Areto Nagusia loraz apaindurik, bertsolariak eta dantzariak, poesiak edo testuak irakurri dituztenak” azpimarratzen du.

Ekitaldia alkatearen agurrarekin hasten da. Askotan, alde zurretik, Areto Nagusia apaintzea ere tokatzen zaio. Ikurriña, Velazquezen erreplikak dauden gela irekita, Urretxuko armarrak atrila izkutatzen, aitamak eta ezkongaietzako lekua uzten da, atzean publikoa eta alde batean ikurriña eta Urretxuko bandera tikiak sinatzeko liburuari babesa emanez.

“Hay bodas de cinco minutos... o de una hora, bertsos, dantzaris y música tampoco faltan”

Agurra egin ostean alkateak –edo honen ordezkariak– ezkontzaren berri ematen du eta ezkongaiari ezkontzeko asmoa duten galdetze die. Baiezkoa entzun eta gero Kode Zibileko hiru artikulua irakurtzen ditu, lehenengoan (66 art.)

‘Senarra eta emaztea eskubide eta eginbeharretan berdinak dira’, bigarren (67 art.) ‘Senarrak eta emazteak elkarri errespetoa zor diote, elkarri lagundu eta familiaren interesen alde jokatu’ eta, azkena (68 art.) ‘Ezkontideak elkarrekin bizi behar dute, leialtasuna mantentuz eta elkarri laguntza eskaini’.

Ondoren alkateak bakoitzari ea ezkondu nahi duen galdetzen dio eta eraztunak elkarri jarri eta musua eman ostean, senar-emazte bihurtzen ditu agintariak eta jendearen txaloak eskatu. Horren ostean ezkonberriei eta lekukoek ekitaldiko akta sinatuko dute.

Horrelako ezkontza ospatu zuten maiatza bukaeran Juan Angelek eta Maria Cristina k. Datorren urtean elizatik pasatzeko asmoa izan arren,

Urretxun bihurtu ziren senar-emazte. “Emozio handia sentitu dugu, ekitaldi xumea nahi genuen baina emozionaturik gaude” zioten. Bikoteak, lana dela eta, hiru urte igaroko ditu Chinan eta horren ostean Urretxun biziko dira.

Emozioa ere Nerea Zabalo eta Miguel Angel Mujikak sentitu zuten bata besteari eraztuna jarri ziotenean.

“Los nervios y la emoción de la pareja es igual que si la boda se celebrara en la Iglesia”

Urretxuarrak ez ezik, beste herrietako jendea ere hurbiltzen da Areto Nagusira. “Atzerritar ugari izan ditugu eta Urretxun jaiok eta kanpoan bizi direnak gustora etortzen dira hona” dio Pello Gonzalezek. Orain arte ezkontza gutxi izan arren, alkateak badu pasadizo batzuk, esatebaterako, izan zuen lehenengo ezkontzan andregaiak hasi zen negarrez eta bera ikusita, ostean hasi zen senargaia... eta biek ezin zuten gelditu... Beste behin, harrিতa gelditu zen ezkongaiak ‘bermudetan’ ikusi zituenean, berandu eta lekukorik gabe eta izan zuen hiru hizkuntzetan ospaturiko ezkontza: euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Denek helburu bera dute, bi pertsonen arteko lotura estutu. N

Jabier Otermin



Jaiotzak

Martxoak	14	OIER ETXEBERRIA ARRANZ Gurasoak: Aitor eta Miren Josune	Ekainak	10	EIDER GONZALEZ DE AUDICANA MUÑOZ Gurasoak: Cristobal eta Maria de Loinaz
	16	JULEN IGARTZA ORTIZ Gurasoak: Jose M. ^a eta Mirari		11	HARITZ CHICO IZAGIRRE Gurasoak: Aitor eta Nagore
	17	XABIER ETXEZARRETA GARATE Gurasoak: Luis M. ^a eta Miren Jaione		14	IKER MARTINEZ GARRALDA Gurasoak: Luis Maria eta Maria Aranzazu
	20	ANDER ZUFIAURRE ARBIZU Gurasoak: Jose Javier eta Beatriz		20	UDANE EGIGUREN ARANBURU Gurasoak: Vicente eta Amaia
	24	ENEKO SAGASTUME RAJADO Gurasoak: Carlos eta M. ^a Belen			
	27	DAVID EXPOSITO GUTIERREZ Gurasoak: Jose Ramón eta Carolina			
Apirilak	02	JON MENDIARAZ POZUETA Gurasoak: Aitor eta Miren losu			
	14	SARA GABILONDO ARRANZ Gurasoak: Aitor eta Ana Amaya			
	29	JANIRE MURUA ARAMENDI Gurasoak: Joseba eta Miren Elixabete			
Maiatzak	02	MADDI RODRIGO ARRAZOLA Gurasoak: Victor eta Miren Ezozia			
	10	ELOY-SIMON BLAZQUEZ ALVAR Gurasoak: Francisco eta M. ^a Luisa			
	12	XABIER SALEGI ARANGUREN Gurasoak: Ignacio eta Amaia			
	14	LUCIA ALBISUA GARCIA Gurasoak: Juan Luis eta Maria Paz			
	22	LAURA FERNANDEZ SANCHEZ Gurasoak: Francisco Javier eta Ana Maria			
	24	AIMAR GARCIA LAZARO Gurasoak: Jose Angel eta M. ^a Isabel			
	31	OIER FERRERO OSINALDE Gurasoak: Jose Manuel eta Mireia			
Ekainak	06	AINHOA OKARIZ APAOLAZA Gurasoak: Iñaki eta Onditz			



Oier Etxeberria Arranz bere gurasoekin



Ezkontzak

Martxoak 10 JOSEBA IMANOL OTAMENDI ALKORTA
ANA ISABEL LARREINA BELAUNZARAN

21 JESUS LOPEZ IRASTORZA
ELISABETH ALDAMA REYES

Apirilak 07 JOSEBA ORMEÑO LINZOAIN
RUTH BARRASA GOMEZ

18 AARON DUAL HERNANDEZ
SUSANA JIMENEZ DUAL

28 JUAN IGNACIO HERNANDEZ GASPAR
MONICA NOGALES NUÑEZ

Maiatzak 05 GAIZKA IGARZA DE LA PIEDAD
SARA MENDEZ BERNABE

12 AITOR URQUIOLA EMPARANZA
AMAYA SIGÜENZA GARCIA

19 EDUARDO OTAEGI URRESTARAZU
MARIA ELENA SAEZ DE GUINOA GARCIA

19 PATXI VILLARINO GASTON
MIREN NEKANE AUSIN ELORZA

26 JUAN ANGEL GARCIA FERNANDEZ
MARIA CRISTINA MANRIQUE MOLINA

26 IGOR PARRA ROMANO
AITZIBER BELDARRAIN ROBLES

26 JUAN MARIA OYARZABAL URBIZU
MARIA ELENA MUGICA MOZO

26 MARIANO LESMES LECUONA
RAQUEL MARTIN ARIJA

Ekainak 02 FRANCISCO JAVIER CRISTOBAL BERZOSA
JONE MIREN URISALBE ASCASIBAR

09 MIGUEL ANGEL MUGICA ZABALETA
NEREA ZABALO ECHEVERRIA

09 LUIS AITOR IRIZAR LOPEZ
AMAYA ARRIETA GALARZA

16 GILBERTO CRUZ BENAVIDES
MIREN NEKANE LARRAÑAGA ARRANZ

23 PEDRO CABALLERO FERNANDEZ
ANA MARIA PEREZ ESCUDERO



Pedro Caballero y Ana María Pérez
se casaron el pasado 23 de Junio

Otsailak 17 IRENE ALFONSO MIGUEL 85 urte

17 TEODULA RUIZ AGUADO 89 urte

Martxoak 06 LISARDO FERNANDEZ TAMARGO 71 urte

20 DIONISIA IBAÑEZ ASTURIAS 79 urte

Apirilak 01 MANUELA GARATE LETE 88 urte

06 MIKEL AINGERU GARMENDIA DUARTE 22 urte

07 M.ª ANTONIA BARRENA GUTIERREZ 65 urte

09 MARGARITA MENDIA GOIKOETXEA 89 urte

19 VENANCIO RUBIO FLAÑO 63 urte

Heriotzak



Maiatzak 07 CAPITALINA BLASCO ROMERO 102 urte

12 JUAN PEDRO ARAÑA ASCASIBAR 40 urte

16 JOSEFA VAZQUEZ CASAS 88 urte

Ekainak 05 M.ª CARMEN ALICIA SANCHEZ SUARES 84 urte

08 Mª ROSARIO ARANZABAL LOITI 81 urte

10 ANGEL GOMEZ VICENTE 53 urte

Javier Ramos está vinculado al acordeón desde muy pequeño. Comenzó con nueve años a tocar este instrumento. Con 18 ya era profesor. Pero él, decidió cambiar un poco y estudiar la carrera de periodismo. Aún así, hoy en día enseña en Pamplona a tocar el acordeón y todo su tiempo libre lo emplea en sacar adelante una revista en la que ha puesto todo su empeño e ilusión.

Cuando le preguntamos cómo le surgió la idea de hacer una revista, él aludió a una obligación moral que tenía. Y es que, Javier siempre ha echado en falta publicaciones y documentos relacionados con el mundo que tanto le apasiona. Por ello, no lo dudó y decidió tirar para adelante. En diciembre de 1997 salía el primer número. Desde entonces han pasado seis años, y la revista ha sufrido diversos cambios, como puede ser la introducción del color.

Los inicios no fueron fáciles. Crearon una asociación de nombre Asociación Cultural Acorde-On, para que la revista tuviese un marco jurídico y legal. Durante los inicios, la ilusión era patente pero con el tiempo, las cosas y el modo de actuar han ido cambiando. Algunos han dejado de participar en la revista, pero otros muchos, continúan en ella a través de diversas colaboraciones que realizan en diferentes números.

yoría profesores de acordeón y escuelas de música. Aún así, cada vez más gente conoce la existencia de la revista. Durante los últimos meses por ejemplo, han mandado ejemplares a Italia o Argentina entre otros puntos de la geografía.

Aunque cada vez la revista es más conocida, el trabajo de sacar adelante cada tres meses una publicación resulta muy atareado. Además, a este trabajo

hay que sumarle el coste económico que supone sacar adelante cada edición. Aún así, Javier sigue luchando por un proyecto en el que cree y que lo considera necesario. Y es

que cree, que la utilidad de la revista no estará unida solo al tiempo durante el que se edite. En su opinión, la revista es un documento que quedará visible en la historia y del que podrán hacer uso en el futuro los interesados en el acordeón para documentarse. **N**

Maidier Izagirre

“Hiru hilabetetik behin argitaratzen da eta postaz bidaltzen da mundu osoko puntu ezberdinetara”

Así mismo, la revista ha ido creciendo poco a poco. Hoy en día por ejemplo, la publicación cuenta con una tirada de mil ejemplares, que se distribuyen por correo. De esta manera, Acordeón siglo XXI, llega a distintos puntos de Euskal Herria y del estado español. Según relataba Javier, los clientes son en ma-



“ El Acordeón ” a toda página

Cuando nos acercamos a los quioscos de prensa, nos podemos encontrar con publicaciones y revistas de todos los tipos y estilos.

Entre ellas, podemos encontrar una dedicada exclusivamente al acordeón y a la trikitixa.

Se trata de la revista Acordeón Siglo XXI.

Una publicación que lleva seis años editándose pero que pocos conocen.

Así mismo, pocos saben que la revista se edita en Urretxu y Zumárraga.

El joven urretxuarra Javier Ramos tiene mucho que ver en todo esto.



BIBA XIBERUA!!

Xuberoa, herri euskalduna, hainbat txoko eder ezezagunetan osatua, bere hizkuntza gozoaren magalean bizi dena, herri euskalduna... horregatik, haren berri izateko asmoz, haren aberastasunaz jabetu gaitezen, ekimen berezi bat aurrera eraman zen Maiatza eta Ekaina inguruan Urretxuko talde batek, Biba Xiberua deiturikoak antolaturikoa.

Mendi irtenaldiak, esposizioak, bideo emanaldiak... egon ziren, baita Maulera asteburu bateko txangoa egin zelarik ere. Ekainaren 9an, larunbatean, Xiberutar herritar batzuen bitartean eman zen, egun osoan zehar dantzek, musikak... herria alaitu zutelarik. Gau parteko jaialdi handiarekin, noski! Hango eta Urretxuko partaide ugari bildu zen Xiberuari merezitako gaua eskeini asmoz. Bai polit egon zela!

Hurrengo egunean herri ingurua bisitatzeko aukera izan zuten iparraldeko gure euskaldunek, baita bapo jan eta ederki abestu zutelarik ere.

“ Dolü gabe hiltzen niz, bizia Xiberuarentzako emaiten baitüt. Agian, agian, egün batez jeikiko dira egiazko Xiberotarrak, e g i a z k o Euskaldunak, tirano arrotzen hiltzeko eta gure aiten aitek ützi daikien lurraren p o p ù l u a r i erremetitzeko...” (Bernard de Goyeneche, Matalaz)



Laburrak



SAN JUAN, SAN JUAN HELDU DA...

Ekainaren 23ko su garren inguruan udari geure ongietorria eman diogu, sorginen dantza magikoaren itzalean. Baita geure desioak lur kiskalira bidali ere, haize beroaren eramanean. Urretxuko herriak, urtero bezala, gozatu du San Juan bezperaz, eta gauaren misterioan murgildu da, ilargiaren begirada sarkorrean. Eguna iritsi arte, festa giroan hasitakoa eta festa giroan amaitutakoa, Irimo mendiaren magalean, Santa Barbarako erromerian, dantzan eta jende jatorren artean eramandakoa.

Eta jeitsiera, egunari agur eginaz, gora ta behera, behera ta gora... bai, San Juan, San Juan heldu da, uda ere iritsi zaigu...ohartu al zarete?

Horri helduz ezin ahaztu gaitzke San Juan jaiaren inguruan antolaturiko beste ekitaldiez, hala nola, areto futbola, dantzari txiki eguna... eta horrekin batera pelota partiduez, bai, San Juan txapelketaz, hainbeste ekitaldien artean, Ederrena pilotalekuan egondakoa.

Geure etorkizuneko pelotarien pilotakadak entzunak ziren ere kalean zehar, herriari deiadar eginaz bezala...



IRAILERAKO FESTAK GERTU

Irailerako festak gertu ditugula hauek aurrera eramateko bilerak hasiko dira urtero lez Uztailean Urretxuko kultur- etxean. Herritar orok parte hartu dezake, hortaz animatu eta ager zaitezte; koadrila, heldu...zeuen laguntza ezinbestekoa baita. Jai giroa aipatu dugula, jakin badakizue Karrozak egiteko tekniken ikastaroa dagoela martxan.

Kalean, Euskal- Jaia egunean kalean pasiatzen ikusten dituzuen karrozek atzean ordu luzeetako lana baitute, eta horregatik, ezinbestekoa da polita irten dadin hainbat teknika eta truko jakitea. Hori dela eta, ikastaroa hor duzue. Gauza ez da bi egunetako lana eta...jai giroak merezi duelako, horra!

Nor da Santa Anastasia?

Ez da herriko patroia, hor baitugu San Martin, baina herriko jai nagusiak haren inguruan murgildurik iragaten ditugu.

Bere hezurak 1674.urtean ekarriak izan ziren Urretxura irailaren 21 eta 22 egunen inguruan, bertan Nekolade izeneko familia zuen apezpiku baten opari gisa.

Herrian harenganako debozioa haunditzen joan zen, eta horren ondorioz hemen aurrean ditugu Iraileko festa nagusiak...haren omenez.



TXALAPARTAREN DOINUPEAN...

...hasi ziren Mendaraz anaiak duela ia 25 urte, eta oraindik hor dabilta hasi berria den jende gaztearengan ilusioa pizten.

Gure omenaldi berezia haientzat, KAIXO herri aldizkariaren partez, bejondeizuela!!



AL-ANON (Familiares y amigos de Alcohólicos)

Desde hace 15 años, el grupo Santa Barbara de Alanon, se reúne todos los viernes a las 7 de la tarde en la Casa de Cultura de Urretxu con el fin de ayudarse en la convivencia con su familiar alcohólico.

Las personas interesadas en esta problemática pueden ponerse en contacto con el nº de Donosti (943 475403) donde les orientarán o llamar a la Casa de Cultura de Urretxu donde se les atenderá, garantizandose su anonimato.

(ALANON taldeak espreski bidalitako informazioa, interesa duen pertsonarentzat)



LEHIAKETAK

Uda aurrean dugula lehiaketa ezberdinek egiten dute parada Urretxun; hala nola, bertso paper lehiaketak, lore sariaketak, Iparragirre sariak...

- Bertso paper lehiaketaren irabazleak ekainaren 15an ezagutarazi ziren, honako hauek: eta argazkian ikusi dezakezue agerikoa da hauen poza. Urretxu bertsolari!!
- Loreek balkoi, leiho eta baserrietako sarrerak apaintzen dituzte udaberri eta uda giroan bazterrak edertuz, gure bi herrietako inguruak piztuz. Horregatik, sariketa berezia egin da, bizilagunak eskertu asmotan. Sari banaketa ekainaren 22an izan zen kaleko herri-tarrak eta baserrikoak ere han bertan parte hartuz.



- Iparragirre sariak ezin ahaztu gaitzake, narratibaren nahiz poesien egiten baita urtero Urretxu eta Zumarragan. Horregatik idazteko asmoa duen edonorentzat erakargarria suerta daiteke honako hau. Lanak aurkezteko epea Irailaren 7an bukatzen da, hauek Urretxuko kultur etxean nahiz Zumarragako Udaletxean aurkeztu daitezkeelarik. Oinarriak ere han eska ditzakezue. Animatu zaitzete, eta zuen hitzen jolasa paperean tintatu!


Honetaz gain pintura eta argazki lehiaketen oinarriak ere eskuragai daude parte hartu nahi duten guztientzat.

UDA Aurrean dugula...

egunari bestelako alaitasun bat nabari diogu, gauak lotsagabeago iragaten ditu orduak, festa giroan, baliteke.

San Juanetatik hasi, Santa Ixabelak, Geltokiko jaiak... zerrenda luze bat jarraituz Santa Anastasietara iristen gara, atsedena eta parrandak geure gorputzetan leku eginaz.

Uda bestelakoa delako, betiko errutinatik aske sentiarazten gaituelako, iratzargailuaren presentzia deserroso horren menpe ez gaudelako...bi hitzetan, udak bitaminak barreiatzen dituelako geure bihotzetara irribarre luzeak bailiran.




Uda aurrean dugula, goza dezagun guztiok merezi dugun bezala.

Zein eder deskribatzen dituen nire barne paisaiak... haren argi izpiak ote?

KAIXOko lankide bat ama bihurturik...

Bai, KAIXOn parte hartzen duen Amaia Aranburu Urretxuarra ama bezela estreinatu zitzaigun Ekaina bukaeran. Zihur gaude Udane Eiguren Aranburu neskato jai berriak bere Amatxo Amaiari eta aitaxo Bixenteri zoriontasun une ugari emango dizkiela, noizean behin nigar batzu egiten badizkie ere...


Beno Amaia, KAIXOko partaide guztien partez ZORION MILA!!!



Ana Isabel Iturbe

Kaixo Txiki

Oraingo honetan hiru lagun aurkeztu behar dizkizuegu guztioi. Agian zuetako batzuk ezagutuko ditzue alproja hauek eta ziurrenik hainbat jolas, parre eta dantza eginak izango zarete beraiekin, ezta? Ba, bai!! Beraiek Ane, Antxon eta Josune dira eta pixkatxo bat gehiago ezagutuko dugu zer egiten duten. Horrela hurrengoan, zu ere txiki, beraiekin dibertitu ahal zaitzateke...



Izena: Ane Iturbe
Jaiotze data: 74 - 04 - 23
Bizilekua: Urretxu
Lanbidea: Gizarte Hezitzailea

Noiztik umeei burukominak eragiten?

Nik 9 urte daramazkit begirale bezela, Antxonek 3 eta Josunek berriz 2 urte.

Zeinek pasatzen du hobekien hurrek ala zuek?

Guk dudarik gabe (jajajaja). Hurrek ala ere primeran pasatzen dute guk antolatutako jolasekin eta askotan gurasorenbat ere jolasteko gogoekin geratzen da.



Izena: Josune Urtizbera
Jaiotze data: 75 - 04 - 14
Bizilekua: Donosti
Lanbidea: Gizarte Laguntzailea

Urretxun ekintza ugari prestatu dituzue ez?

Bai, Gainzuri Ikastetxerako festak, pazko asteko ekintzak, eta uda kirolak, besteak beste.



Nolatan topo egin zenuten hirurok?

Antxon eta ni (Ane) ikastetxe batetako jangela batean lanean topo egin genuen eta biok hurrekin lan egitea gustoko genuenez beraientzat jolasak eta ekintzak prestatzen hasi giñen. Geroago Josune ezagutu nuen orain lana egiten dudan tokian eta bera ere gurekin elkartu zen.



Izena: Antxon Reyes
Jaiotze data: 76 - 04 - 12
Bizilekua: Legazpi
Lanbidea: Abenturazko Begiralea



garaiean lan hori ez da ikusten. Gainera askotan eguraldiak ez du laguntzen gehiegi eta inprobisatu beharra dago.

Zer berezitasun dute hemengo deabrutxoek?

Hemengo haurrak, leku guzti-
etako haurrek bezala, zarata eta
zikintzea gustokoa dute. Jolasa
egiterakoan zarata asko egiten
badugu hobe eta gainera etxera
beraiek egindako zerbaitekin joa-
ten badira, askoz hobeto oraindik.

**Bukatzeko, zertxobait esango
zeniekete hemendik Kaixo
Txikiko irakurleei?**

Haurrak izaten jarraitzeko.^N

Miren Jasu Etxeberria

**Nola prestatzen duzue horrelako
ekintza bat?**

Ekintza bakoitzerako desberdin
antolatzen gera. Lehenengo
ekintza aztertzen da eta horren

arabera jendea bildu eta materiala
prestatzen da. Gustokoen ditugun
ekintza tirolina eta dantza eta
abestiak dira. Gauzak prestatzeko
denbora dexente behar da eta
askotan ekintza aurrera eramateko



Hollywoodeko izarrak

urretxun



Matrix

Creerás lo increíble

Lekua: Gernikako Arbola
Plazan

Ordua: 22,30etan

Día: 20 de Julio



Planeta Rojo

Ni un sonido. Ni una advertencia.
No hay escape. No están solos.

Día: 24 de Julio